



INFORMAZIO-OHARRA

EUSKAL NEKAZARITZA-SEKTOREARENTZAKO APARTEKO LAGUNTZA, ERRUSIAK UKRAINAREN AURKA EGINDAKO ERASOAREN ONDOREN EKONOMIA BABESTERA BIDERATUTAKO ESTATU-LAGUNTZAKO NEURRIEI BURUZKO ALDI BATERAKO ESPARRU NAZIONALAREN BARRUAN

LAGUNTZAREN HELBURUA:

Aparteko laguntzak ematea nekazaritza-jarduerari eusteko behien, ardien, ahuntzen, haragitarako eta errutetarako hegaztien, txerrien, untxien, zaldien, patataren, erremolatxaren, bazka-artoaren eta zenbait lekadunen azpisektoreetan, ustiategi horiei laguntzeko, ustiategi horiek Errusiaren inbasiotik eratorritako ekoizpen-kostuen gehikuntzaren ondorioz izaten ari diren zailtasunak arintzeko.

Laguntzak, Administrazioak dituen datuekin kudeatuko dira, eta **ofizioz** emango zaizkie baldintzak betetzen dituzten ustiategiaren titularrei.

Izapideak bitarteko elektronikoen bidez baino ez dira egingo, EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta» bidez (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/>).

ONURADUNAK, BALDINTZAK ETA LAGUNTZAREN ZENBATEKOAK:

	ONURADUNAK	LAGUNTZAREN BETEKIZUNAK	OINARRIZKO LAGUNTZAREN ZENBATEKOA
1	ESNE BEHIEN ustiategiaren titularrak	- Esne-behiei (VL) lotutako laguntza-eskaera 2022ko Eskaera Bakarrean - 2021ean, 10 abere baino gehiagorengatik VL laguntza jasotzea (esnea entregatzeko baldintzarik gabe)	220 €/esne behi
2	HARAGITARAKO BEHIEN ustiategiaren titularrak	- Behi ume-hazleei (VN) lotutako laguntza-eskaera 2022an - 2021ean, 5 abere baino gehiagorengatik VN lotutako laguntza jasotzea	85 €/behi ume-hazle
3	TXAHALAK GIZENTZEKO ustiategiaren titularrak	- Txahalak gizentzeari (VC) lotutako laguntza-eskaera 2022an - 2021ean, 5 abere baino gehiagorengatik VC lotutako laguntza jasotzea	100 €/cabeza
4	ARDI-AZIENDAREN ustiategiaren titularrak	- Ardi-aziendari lotutako laguntza-eskaera 2022an - 2021ean, 50 eme ugaltzaile baino gehiagorengatik ardi-aziendari lotutako laguntza jasotzea (esnea edo arkumeak entregatzeko baldintzarik gabe)	5 €/cabeza
5	AHUNTZ-AZIENDAREN ustiategiaren titularrak	- Ahuntz-aziendari lotutako laguntza-eskaera 2022an - 2021ean, 40 eme ugaltzaile baino gehiagorengatik ahuntz-aziendari lotutako laguntza jasotzea (esnea edo antxumeak entregatzeko baldintzarik gabe)	5 €/cabeza
6	UGALKETA-TXERRAMA ustiategiaren titularrak	- Ustiategiaren titularra izatea 2022/01/01ean - Ekoizpen- eta ugalketa-ustiategi motan inskribatuta egotea REGAn, eta honela sailkatuta: "ziklo itxiko ekoizpena", "esne-txerriki ekoizpena", edo "mota mistoa". - 50 eme ugaltzaile baino gehiago izatea (Kat. 03) 2022ko nahitaezko DAOn, 2022ko uztailaren 31n SITRAN-EUSKADIn argitaratutakoaren arabera	35 €/cabeza
7	TXERRIAK GIZENTZEKO ustiategiaren titularrak	- Ustiategiaren titularra izatea 2022/01/01ean - Ekoizpen- eta ugaltze-ustiategi motan inskribatuta egotea REGAn, eta honela sailkatuta: "gizendegia". - 100 gizentzeko txerriki gora izatea (kat. 00) 2022ko nahitaezko DAOn, 2022ko uztailaren 31n SITRAN-EUSKADIn argitaratutakoaren arabera	80 €/cabeza
8	ERRUTE-OILOEN ustiategiaren titularrak	- Ustiategiaren titularra izatea 2022/01/01ean - Ekoizpen- eta ugalketa-ustiategi motan inskribatuta egotea REGAn, "arrautzentzako ekoizpen-ustiategi" gisa sailkatuta. - 750 errute-oilo baino gehiago izatea (kat. 27, 28, 29, 30, 54 eta 55), 2022ko nahitaezko DAOn, 2022ko uztailaren 31n SITRAN-EUSKADIn argitaratutakoaren arabera.	2,20 €/cabeza

9	GIZENTZEKO OILASKOEN ustiategien titularrak	- Ustiategiaren titularra izatea 2022/01/01ean - Ekoizpen- eta ugalketa-ustiategi motan inskribatuta egotea REGAn, eta honela sailkatuta: "haragitarako ekoizpen-ustiategia". - 1.000 gizentzeko oilasko baino gehiago izatea (cat. 25) 2022ko nahitaezko DAOn, 2022ko uztailaren 31n SITRAN-EUSKADIn argitaratutakoaren arabera.	1 €/cabeza
10	UNTXIEN ustiategien titularrak	- Ustiategiaren titularra izatea 2022/01/01ean - Ekoizpen- eta ugalketa-ustiategi motan inskribatuta egotea REGAn, eta honela sailkatuta: "haragitarako untxikumeen ekoizpena". - 100 eme ugaltzaile baino gehiago izatea (Kat. 11) 2022ko nahitaezko DAOn, 2022ko uztailaren 31n SITRAN-EUSKADIn argitaratutakoaren arabera	5 €/cabeza
11	ZALDIEN ustiategien titularrak	- Ustiategiaren titularra izatea 2022/01/01ean - Ekoizpen- eta ugaltze-ustiategi motan inskribatuta egotea REGAn, eta honela sailkatuta: "gizendegia", "haragia ekoizteko ugalketa" edo "ekoizpen mistorako ugalketa" - 12 hilabetetik gorako 25 zaldi baino gehiago izatea (kat.15, 16, 17 eta 18), 2022ko nahitaezko DAOn, 2022ko uztailaren 31n SITRAN-EUSKADIn argitaratutakoaren arabera	50 €/cabeza
12	PATATA ETA/EDO ERREMOLATXA duten nekazaritza-ustiategien titularrak	- Eskabide bakarra 2022an aurkeztu izana eta gutxienez 2 ha patata eta/edo erremolatxa aitortu izana. - 2021eko eskaera bakarrean, patataren eta/edo erremolatxaren 2 hektarea onargarri baino gehiago izatea	160 €/ha
13	BAZKA-ARTOA duten nekazaritza-ustiategien titularrak	- Eskabide bakarra 2022an aurkeztu izana eta gutxienez hektarea 1 bazka-arto aitortu izana. - 2021eko eskaera bakarrean, bazka-arto hektarea onargarri bat baino gehiago izatea	250 €/ha
14	Honako lekadun hauek dituzten nekazaritza-ustiategien titularrak: BABARRUNA, GARBANTZUA, DILISTA	- Eskabide bakarra 2022an aurkeztu izana, eta lekadun horietatik gutxienez 1 ha deklaratu izana (guztiak kontuan hartuta). - 2021eko eskaera bakarrean, lekadun horietatik hektarea onargarri bat baino gehiago izatea	250 €/ha

LAGUNTZA OSAGARRIA: %5 laguntza osagarria emango zaie titularra emakumea edo gaztea duten ustiategiei.

Laguntza bakoitzerako taulan zehaztutako baldintza espezifikoek gain, onuradun guztiek honako **BALDINTZA OROKOR** hauek bete beharko dituzte:

- **Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.**
- Aginduaren 4.1 artikuluan ezarritako **erantzukizunpeko adierazpena** aurkeztea. Adierazpen hori espedientearen parte izango da karpeta elektronikoan, eta aurkeztutzat joko da onuradunak ez badu jakinarazpenik egiten behin-behineko zerrenda argitaratu eta 5 eguneko epean.

PROZEDURAREN FASEAK

- Administrazioaren datuetatik abiatuta kudeatutako laguntzak direnez eta baldintzak betetzen dituzten ustiategien titularrei ofizioz ematen zaizkienez, onuradunek **EZ dute laguntza-eskaerarik aurkeztu beharko.**
- Laguntza hauek arautuko dituen Agindua argitaratzen denetik gehienez 15 eguneko epean, EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/> argitaratuko da **onuradunen behin-behineko zerrenda**, honako informazio honekin:
 - o Zenbatutako buru eta/edo hektarea kopurua
 - o Laguntza osagarriko beharrezkoa den emakumearen edo gaztearen titulartasuna betetzen den edo ez.
 - o Onuraduna Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoko "Hirugarrenen Erregistroan" alta emanda dagoen ala ez. Baldintza hori ezinbestekoa da ordainketa jaso ahal izateko. Alta emateko edo datuetan aldatetako egiteko: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/web01-tramite/eu/>
- Onuradunak **5 egun baliodun** izango ditu honako hauetarako:
 - o **Onartzea/baztertzea/datuak aldatzea** (5 egunetan jarduketarik egiten ez bada, laguntza onartutzat joko da, eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuta)

- Behin-behineko zerrendan agertzen ez bada, eta baldintzak betetzen dituela uste badu, **zerrendan sartzeko eskatzea**, justifikazio-agiriak aurkeztuz (eskabide bakarraren kopiak edo SITRAN-EAetik lortutako abeltzaintzako azpiustiategi baten titularra dela egiaztatzen duen fitxa).
- Aurreko paragrafoan xedatutakoaren babesean aurkeztutako alegazioen ebazpena, gehienez ere hilabeteko epean.
- Onuradunek **zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzea**.
- Administrazioak ezin badu ofizioz egiaztatu onuradunak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, interesdunak, "Nire karpeta"ren bidez, betebeharrak horiek zuzentzeko eta/edo egiaztatzeko aukera ematen duen dokumentazioa aurkeztu ahal izango du. Onuradunek EAeko Administrazio Publikoaren taula elektronikoa (https://www.euskadi.eus/iragarki-taula_elektronikoa/) **kontsultatu beharko dute zer egoeratan dauden**. Egoera hori eguneratzen joango da, ofiziotik egiaztapenak egin ahala.
- Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariaren **ebazpena**, laguntza eman edo ukatzeari buruzkoa, **laguntzak jakinaraztea eta ordaintzea**. Jakinarazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta lehen aipatutako egoitza elektronikoa argitaratuz egingo da.
- Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka, onuradunak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango du hilabeteko epean.
- Laguntzaren zenbatekoa 2022ko abenduaren 31 baino lehen ordainduko da.
- **GARRANTZITSUA:** Laguntza jaso ahal izateko, onuradunak EAeko Administrazio Publikoaren Hirugarrenen Erregistro elektronikoa agertu beharko du. Taula elektronikoa kontsultatu ahal izango da onuraduna erregistroan agertzen den ala ez. Erregistroan alta ematea edo dauden datuak aldatzea helbide honetan egin daiteke: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuak-aldaketa/>